


PRENTSA OHARRA

1.011.363 PERTSONA IZAN ZIREN GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAN 2014AN


2014. urtean seigarren aldiz lortu zuen Guggenheim Bilbao Museoa milioi bat bisitarien kopurua gainditzea. 1.011.363 pertsona hurbildu ziren Museora amaitu berri den urtean; 2013an baino %8,6 gehiago, hau da, 80.348 bisitari gehiago. Ekimen honetarako aurreikusitako kopurua (930.000) gainditu da, beraz, erakundeak oso positibotzat jotzen du emaitza hori.

Bisitarien jatorri geografikoari dagokionez, azpimarratzekoa da, beste urte batzuetan bezala, atzerritarren kopurua (%64 guztira); gehienak Frantziatik (%18), Erresuma Batutik (%7), Alemaniatik (%7), AEBtik (%7) Italiatik (%4) eta Portugaletik (%3) etorritakoak izan dira. EAEko bisitarien kopurua 2013an baino %1 gehiago izan da, %13; estatuko bisitarien ehunekoa, aldiz, 2013ko bera izan da, %23.

Bisitarien ehunekoak jatorri geografikoaren arabera:



Atzerriko bisitarien ehunekoak jatorri geografikoaren arabera:



2014an pertsona gehien erakarri zituen aldeetako bat Museoaren arte-programazioa izan zen. Bisitari gehien izandako aldi baterako erakusketak *Yoko Ono. Half-A-Wind Show. Atzera begirakoa* (613.754 bisitari) eta *Georges Braque* (397.364 pertsona) izan ziren.

Bestalde, www.guggenheim-bilbao.es webgunean 1.269.946 bisitaldi izan ziren 2014an; eta 3.768.314 orrialde begiratu ziren.

Hezkuntza-egitarauei dagokienez —Guggenheim Bilbao Museoak askotariko parte-hartzaileentzat antolatzen ditu, hala nola, irakasleentzat, haurrentzat, familientzat, gazteentzat, Lagunentzat, baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat...—, 442.033 pertsonak esku hartu zuen 2014ko jardueraren batean. Aipatzekoa da Frank Gehryk diseinatutako hezkuntza gun bat ireki zela lehen Denda-Liburudenda zegoen bi solairutan; bertan, eskola-haurrentzako eta familientzako tailerrak egiten dira. Halaber, nabarmentzekoak dira Baby Art jarduera, Arkitekturaren hastapenak haurrentzat ikastaroa, helduentzako sormen saioak eta bestelako hitzaldi, ikus-entzunezko emanaldi eta trebakuntza-ikastaroak. Horrez gain, 2014an abian jarri zen aretoetako orientatzaileen ekimena, bisitariei erakusketak ulertzen laguntzeko, eta *Books Alive!* jardueraren eskaintza zabaldu zen, eskari handia baitu, eta ingelesez beste jarduera batzuk martxan ipini ziren, *Let's Go to the Movies* kasu.

Enpresen parte hartzea Guggenheim Bilbao Museoan egonkorra izan zen 2014an. 109 Kide Korporatibo ziren 2014 amaieran. Museoak oso positiboki jotzen du enpresen babes hori, erakundearen oinarrietako bat baita.

Museoaren Lagunen (Banakako Kideen) programan urte amaieran 15.623 Lagun ziren, aurreko urteen kopuru bertsua; kopuru horrek aditzera ematen du hurbilekoek Museoa babesten dutela.

Erdu egitasmoari dagokionez —krisi ekonomikoa dela eta, 2013ko martxoan jarri zuen abian Museoak, langabezian daudenei doako sarbidea eskaintzeko—, 2.001 onuradun izan ziren 2014an, 2013ko kopuru bertsua.

Guggenheim Bilbao Museoaren jardunak 2014. urtean inguruan izandako eragin ekonomikoaren azterketak honako emaitzak ekarri ditu:

- 336,8 milioi euroko guztizko gastu zuzena egin zen Euskadin Museoaren jardunaren ondorioz.
- 297 milioi eurotan aberastu zen BPGd.
- 45,7 milioi euroko sarrera gehigarriak izan zituzten Euskal Ogasun Publikoek jarduera ekonomiko horren eraginez.
- 6.375 lanpostu gordetzen lagundu zuen jarduera ekonomiko horrek.

Azkenik, Europako kultur erakundeen artean, Guggenheim Bilbao Museoa 2014an ere buru izan zen autofinantzazioaren arloan; %64 ingurukoa izan zen 2014an.